**MINISTERIO
DE TRANSPORTES, MOVILIDAD
Y AGENDA URBANA**

GARRAIO ETA MIGIKORTASUN IDAZKARITZA NAGUSIA | SECRETARIA GENERAL DE TRANSPORTES Y MOVILIDAD

MERKATARITZA NABIGAZIOKO ZUZENDARITZA NAGUSIA | DIRECCION GENERAL DE LA MARINA MERCANTE

**PASAIAKO ITSAS KAPITAINTZA | CAPITANIA MARITIMA DE PASAIA**

FIRMADO

FIRMADO por : BILBAO CAMARA, JOSU GOTZON. A fecha: 28/08/2020 01:14 PM
Total folios: 1 (1 de 1) - Código Seguro de Verificación: MFOM02SDAAE654894D8474F9B92D
Verificable en https://sede.mitma.gob.es

MINISTERIO
DE TRANSPORTES, MOVILIDAD
Y AGENDA URBANA

## 2020KO DONOSTIAKO ESTROPADAK DIRELA ETA, PASAIAKO ITSAS KAPITAINTZAK EMANDAKO JARRAIBIDEAK
## INSTRUCCIONES EMITIDAS POR LA CAPITANIA MARÍTIMA DE PASAIA CON MOTIVO DE LAS REGATAS DE SAN SEBASTIAN 2020

**IRAILA 6 , 13 SEPTIEMBRE**

COVID19aren eraginez, lehorretik estropadak ikusteko ohiko lekuetan antolakuntzak ezarritako murrizketak kontuan hartuz, estropadak itsasotik jarraitzea erabakitzen duten zaleen kopuruak gora egin dezakeela susmatuz, itsasoko eta nabigazioko segurtasunarekin lotutako arazoak aurreikusteko eta, ahal den neurrian, ekiditeko helburuarekin, aurten ezohiko neurri hauek uretan ere hartu behar dira:

**JARRAITZAILEENTZAKO ETA IKUSLEENTZAKO ARAUAK**

1. Estropadak ontzietatik jarraitzeko asmoa duten zaleei, antolakuntzaren aholkuak jarraituz, estropadak etxetik ikus ditzaten eskatzen zaie: **"AURTEN KONTXA ETXETIK"**

2. Kontxako Badian ainguratu ohi duten eta estropada gunetik 50 metro baino gutxiagora dauden ontzi guztiak bertatik erretiratu beharko dituzte irailaren 6an eta 13an —igandeak— goizeko 9:00ak baino lehen.

3. Ontziek eta bainulariek debekatuta izango dute irailaren 6an eta 13an —igandeak—, goizeko 9:00etatik aurrera, estropada-lerroa gurutzatzea.

4. BESTE PORTU BATZUETATIK BERTARA HURBILTZEN DIREN ONTZIEK ESTROPADAK KANPOKO ZIABOGEN ATZETIK JARRAITUKO DITUZTE ETA EZINGO DUTE BADIAN SARTU GOIZEKO 08:00ETATIK ESTROPADETAKO AZKEN TXANDA AMAITU ETA ORDUBETE BERANDUAGO ARTE (13:00AK INGURU). DEBEKATUTA DAGO KANPOKO ZIABOGETATIK TRAINERUEN ATZETIK JOATEA.

5. Irailaren 6an eta 13an —igandeak—, 09:00etatik 13:00ak arte, badian ainguratzeko baimena duten eta atrakalekua Donostiako portuan duten ontziak soilik egon ahal izango dira bertan. Badian behar bezala ainguratuak eta estropada-eremuarekiko finkatutako segurtasun-distantziara (estropada-eremuaren kanpoko mugetatik 50 metrora gutxienez) egon beharko dute.

6. Donostiako portuan atrakatuta dauden ontziek ezingo dute portutik atera irailaren 6an eta 13an —igandeak—, goizeko 09:00etatik 13:00ak arte.

7. Debekatuta dago urgaineko edozein gailurekin (piragua, paddle up, kayak, etab.) estropada-eremuan sartzea. Haiek estropada-eremuaren kanpoko lerrotik gutxienez 50 metrora egon beharko dute.

8. Pertsona gehiegi daramaten ontzietako patroiei eta jabeei eurek duten erantzukizuna gogoratzen zaie, mugak errespetatzen ez badituzte ontziak maniobrak egitea eta bertan doazen pertsonen segurtasuna arriskuan jartzen egongo baitira. Ontziaren neurriek eta salbamendu-elementuek ahalbidetzen dituztenak baino pertsona edo tripulazio gehiago ezingo dira ontziratu. Gainera, ontziaren barruan, COVID19ari lotuta agintaritza eskudunak zehaztutako osasuneko segurtasun-neurriak bete beharko dituzte.

9. Une oro antolakuntzaren arduradun den DONOSTIA SAN SEBASTIAN FESTAK erakundeko pertsonalak eta kirol-epaileek emandako aginduak bete beharko dira.

PASAIAKO ITSAS KAPITAINA
Josu Bilbao Camara

Con el fin de prevenir, y en su medida evitar, problemas relacionados con la seguridad marítima y de la navegación, motivados por un posible incremento en la presencia de aficionados que decidan seguir las regatas desde la mar, habida cuenta de las restricciones adoptadas por la organización en los lugares habituales de observación en tierra, motivadas por la COVID19, es necesario este año adoptar las siguientes medidas excepcionales, también en el plano marítimo:

**INSTRUCCIONES PARA SEGUIDORES Y ESPECTADORES**

1. Se insta a los aficionados que tengan pensado acudir a seguir las regatas desde embarcacines, para que este año siguiendo las recomendaciones de la organización las regatas se vean desde casa: **"ESTE AÑO LA CONCHA DESDE CASA"**

2. Todas las embarcaciones que habitualmente fondean en la Bahía de la Concha y que se encuentran a menos de 50 metros de la zona de regatas, deberán ser retiradas para las 9:00 horas de la mañana de los domingos 6 y 13 de septiembre.

3. Queda terminantemente prohibido cruzar la línea de regatas tanto por embarcaciones como por bañistas a partir de las 09.00 horas los domingos días 6 y 13 de septiembre.

4. LAS EMBARCACIONES QUE SE ACERQUEN DESDE OTROS PUERTOS SEGUIRAN LAS REGATAS TRAS LAS CIABOGAS EXTERIORES, NO PUDIENDO ACCEDER A LA BAHIA DESDE LAS 08.00 HORAS HASTA UNA HORA DESPUES DE LA FINALIZACION DE LA ULTIMA TANDA DE LAS REGATAS (APROX. 13.00 HORAS). SE PROHIBE SEGUIR A LAS TRAINERAS DESDE LAS CIABOGAS EXTERIORES.

5. Los domingos 6 y 13 de septiembre, sólo podrán permanecer en el interior de la bahía, entre 09.00 y las 13.00 horas, las embarcaciones que cuenten con fondeo en la misma y aquellas que cuenten con atraque en el puerto de Donostia/San Sebastián. Deberán permanecer en la bahía debidamente fondeadas y a las distancias de seguridad establecidas respecto del campo de regateo (mínimo a 50 mts de los límites exteriores del campo de regateo).

6. Las embarcaciones atracadas en el puerto de Donostia/San Sebastián no podrán abandonar el mismo entre las 09.00 y las 13.00 horas los domingos 6 y 13 de septiembre.

7. Queda expresamente prohibida la invasión del campo de regateo por todo tipo de artefacto flotante (piraguas, paddle up, kayak, etc…), debiendo los mismos permanecer a una distancia de al menos 50 mts. respecto de la línea exterior del campo de regateo.

8. Se recuerda la responsabilidad en que incurren los patrones y propietarios de embarcaciones que vayan sobrecargados de personal, con peligro para la maniobra del buque y seguridad de las personas. No deberán embarcar más dotaciones y personal que las correspondientes a sus dimensiones y elementos de salvamento. Además deberán mantener a bordo las medidas de seguridad sanitarias frente a la COVID19 determinadas por la autoridad competente.

9. Deberán seguirse en todo momento las indicaciones del personal de DONOSTIA SAN SEBASTIAN FESTAK responsable de la organización, así como de los jueces deportivos.

EL CAPITAN MARITIMO DE PASAIA
Josu Bilbao Camara

CORREO ELECTRONICO / POSTA ELEKTRONIKOA

jgbilbao@fomento.es

ZONA PORTUARIA, S/N
20110 PASAIA (GIPUZKOA)
TEL.: 943351816-943352616
FAX.:943353307